5.maila - BURUZ EGITEKO PROBLEMAK-2. zatia

Saiatu zaitez buruketa hauek ahalik eta azkarren egiten papera eta arkatza erabili gabe.

(1) Lehenengo poltsan 12 gaztaina daude. Eta bigarren poltsan lehenengoan baino 7 gehiago. Zenbat gaztaina daude bigarren poltsan?

_____ gaztaina

(2) 12 madari ditu, baina laurdena hondatuta daude. Zenbat madari on geratzen dira?

_____ madari

(3) Egin 3 aldiz handiago 25 zenbakia

_____

(4) Zenbat 20 zentimoko gozoki eros ditzaket 5 €rekin?

_____ gozoki

(5) Poltsan 12 madari ditut, baina herena hondatuta daude. Zenbat madari on daude?

_____ madari.

(6) Zenbat egun daude 2 astebetetan?

_____ egun

(7) Zenbat sagar dira 3 dozena sagar?

_____ sagar

(8) Zenbat ordu dira 6 ordu laurden?

_____ ordu

(9) 8 neskak 5 €ko billete bana dituzte. Zenbat 10 €ko billete lor ditzakete guztien artean?

_____ bilete

(10) 10 errotuladoreko kaxa batek 6 € balio ditu. Zenbat balio du errotuladore bakoitzak?

_____ euro